



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

NEXTgozioa

a oharkabeen pasa da Bilboko Udalak 2010 eta 2014 artean milioi eta erdi euro batzen dituzten hogeitaka hirigintza-kontratu esleitu izana Fundación Metrópoli delakoari, lehiaketa publikorik gabe. Isiltasun informatiboa ez da hain harrigarria, egia esan, fundazio horren burua Alfonso Vegara hirigilea dela jakinda. Eta ez soilik Ana Gorroño EAJko diputatu ohiaren senarra delako (oso harira datorren lotura da, Gorroño elkarte horretako presidenteorde ere badelako), baizik eta haren eragin ideologikoa ikaragarria izan delako azken hogeitau urteotako Bilboko eta are Euskal Autonomia Erkidego osoko hiri eta lurralde eredu ofizialaren eraikuntzan. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren lurralde antolamendua gidatu duen "Euskal Hiria" izeneko proiektuaren aita pontekoa da Vegara, berak idatzi baitzituen oraindik indarrean diren 1997ko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak.

EH Bildu Bilboren salaketari esker, Lehiaren Euskal Agintaritzak txosten latza argitaratu zuen iragan maiatzaren 30ean. Bertan, datu eta zifra ugari-ekin erakusten da esandako elkarteak gutxi duela fundaziotik, bere jarduerak merkataritza-izaerakoak direlako (Iñaki Urdangarinen Noos institutua-ekin elkarlanean aritzera ere iritsi zen 2006an). Bilboko Udalak hitzarmen-tzat eta BEZik gabeko donaziotzat uler daitezkeenak erabat perbertitu dituela ere erakusten da, gardentasun-oinarri gutxienekoak bortxatuz, gainera. Hori guztia, Promobisa, Bilbao NEXT eta Bilbao Ekintza udal sozietate publikoeta-tik burutu da, Andoni Aldekoa kazeta-ria gidari (EAJko azken urteotako ideologo garrantzitsua, Azkunaren zein Urkulluren aholkulari nagusia izan dena).

«Diru asko dago munduan, eta hura erakartzeko proiektuak behar dira», disimulurik gabe aitortu zuen Vegarak 2012an. Ideologia kapitalista batean zilegi ei den asmo zinikoa, jakina, bai-na koherentea izanez gero sistema ka-pitalistaren konpetentzia librearen arauak jarraitu beharko lituzkeena,

instituzio eta diru publikoez baliatu ordez. Diru-gosea ulergarria da, baina ez dugu zertan denon artean ordain-du, EAJk ahalbidetu moduan, Bilboren «hiri-lidergoa» sendotzen saiatzeko. Zeren eta gero EAJk nahieran maneia-turiko EITBko albistegietan naturalta-sun guztiz salduko digute Bilbo Shanghaiko 2010eko nazioarteko ez-dakit-zer-erakusketan egon dela, edo Singapurreko Lee Kuan Yew World City Prize delakoaren lehen edizioko saria jaso duela Bizkaiko hiriburuak (hara zer kasualitatea Vegara Singapu-rrek Madrilen duen kontsula izatea), edo 2014ko World Design Capital dela-ko lehiaketan finalista izan dela, edo 2014ko Singapurreko World Cities Summit foroan izan dela (kontxo, be-rriz ere Singapur), nahita ahaztuta «lorpen» horiek guztiak ez direla lehia garbian lortutakoak, baizik eta poltsi-ko publikotik ordaindutakoak.

«Euskadiko eredua ez da Espainia-koa; ezberdina da» ziurtatu berri du Urtaran EAJko Gasteizko alkateak, turismoaren gainera eztabaida lo-

kaztuan, kasu honekiko amnesia kezkarria azalduz, Bilbao NEXTen helburu nagusietakoa turismoa era-kartzea baitzen. EAEko eredua Espai-niakoa ez bada, zertara dator hogei-taka kontratu nahierara ematea Alacanteko izar-hirigilearia, zeinak, Aitziber Ibaibarriaga Bilboko zinego-tziak ederki salatu bezala, berdin-ber-dina egin duen Bilbon zein Coruñan, bietan majo kobratuz? Ezetz asmatu nola deituko den etorkizuneko Coru-ña, Vegararen arabera: bai, Coruña NEXT.

Gidalerro berrietan ere, aldaketak egon arren, Vegarak 2012an landutako "Euskal Hiria NET" agiriko hizkuntza arranditsu, eufemistiko eta hutsala erabiltzen jarrai-tzen ari da Jaurlaritza (berrikuntza-eko-sistemak, eraldaketa-ardatzak, bikainta-sun-espazioak, ezagutza-nodoak, lurralde adimentsuak, metropoli-ekobu-lebarrak), akaso konturatu gabe aditu be-ra berdin-berdina proposatzen ari dela munduko hainbat eskualdetan (Patago-nia, Murtzia, Casablanca, Bucaraman-ga...). Lurralde guztiak berdinak balira be-zala: NEXTgozioa. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO